



**2016KO EKAINAREN 3KO**  
**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko ekainaren hiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2016ko maiatzaren 20an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 41 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, BERROGEITA HAMAR MILA ZORTZIEHUN ET ABERROGEITA BEDE-RATZI EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (50.849,37 €)takoa onartzea erabaki-tzen da.

**III.- PRODUKTIBITATE GEHIGARRIA UDAL LANGILEENTZAT.-**

Gehiago aztertu beharreko gaia dela kontsideratuta, guztien adostasunarekin ma-hai gainean uzten da.

**IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-**

San Prudentzio jaietan egindako jarduerengatik diru laguntzak emateko Kultura Batzardeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzardeak honako era-baki hauek hartzen ditu:

Maitane Fernandez Angulo.- Haurren jinkana jokuaren antolaketarengatik BEDERATZI-EHUN (900 €) EUROko diru laguntza ematea.

**V.- HEZKUNTZAKO DIRULAGUNTZAK .-**

Hezkuntza Batzardeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Ba-tzardeak honako erabaki hau hartzen du:

Lazkao Txiki Musika Eskola.- 2016ko martxoaren 7tik 13ra antolatutako aste kulturalagatik HIRU MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA SEI EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMO (3.786,13 €)ko diru laguntza ematea.



#### VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du beraien kezka azaldu nahi dutela musika eskolaren inguruan eta udal taldeen artean hitz egin beharko luketela gai horri buruz.

Alkateak erantzuten dio ondo iruditzen zaiola.

Aran zinegotziak kultura batzordearen funtzionamenduari buruzko kexa azaldu nahi duela esaten du, eta horri buruz ere hitz egin beharko luketela.

Alkateak erantzuten dio ondo iruditzen zaiola hitz egitea baina kultura batzordea beste zer baitetan bihurtu gabe.

Alkateak udalaren irudi korporatiboa eta herri markaren inguruan eman diren urratsen eta jarraitu diren prozesuen azalpena egiten du

#### VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

